# 2022

| AURREKONTU OROKORRAK | PRESUPUESTOS GENERALES |
|---|---|

## Aurrekontua Gauzatzeko Foru Araua

## Norma Foral de Ejecución Presupuestaria

FINANTZA ETA AURREKONTU ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE FINANZAS Y PRESUPUESTOS

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

## 33/2021 FORU ARAUA, ABENDUAREN 21EKOA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2022RAKO AURREKONTUA GAUZATZEARI BURUZKOA
## NORMA FORAL 33/2021, DE 21 DE DICIEMBRE, DE EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ALAVA PARA EL AÑO 2022

### ZIOEN AZALPENA

Aurrekontu hauek Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauan xedatutakoa betez onesten dira, Ekonomia Itunaren 48. eta 62.b) artikuluetan xedatutakoaren babesean, Arabako Foru Aldundiak 2022rako onetsitako aurrekontu egonkortasuneko eta zor publikoko helburuen arabera, bai eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak emakumeen eta gizonen berdintasunerako ezarritako arau agindua betez ere.

Aurrekontuak gauzatzeko foru arau honen I. tituluan jasotzen da haren funtsezko edukia: Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoko diru sarreren eta gastuen egoerak onestea eta haren zergei eragiten dieten eta zerga gastuen zenbatekoa kontsignatzea.

II. tituluak Arabako foru sektore publikoaren zorpetzearen eta bermeak ematearen mugak ezartzen ditu, bai eta finantza eragiketen kudeaketari buruzko arauak ere.

III. tituluan, besteak beste, aurrekontu kredituen eta horien aldaketen arauketa orokorraren espezialitateak arautzen dira. Zehazki, 2022ko ekitaldiko kredituen lotura mailak, kreditu transferentzien araubiderako salbuespenak, konpromiso kredituen araudiari buruzko hainbat alderdi eta gaikuntzen zehaztasunak.

IV. tituluak aurrekontuen kudeaketaren eta kontrolaren inguruko arauak, gastua baimentzeko eta antolatzeko eskumena duten organoak, diruzaintzako aurrerakinak, zenbateko txikiko eskubide ekonomikoak, gastua gauzatzearen mugak eta kontrol ekonomikoa biltzen ditu.

V. titulua, langileen kudeaketaren araubideari buruzkoa, bi kapitulutan banatzen da. I. kapitulua, administrazio sektore publikoari buruzkoa, eta II. kapitulua, foru sektore publikoko beste erakunde batzuei buruzkoa. Biek arautzen dituzte aurrekontu plantillaren osaera eta funtzionarioen, lan kontratudun langileen, behin-behineko langileen eta goi kargudunen ordainsari osoak, zer dagokion. Foru sektore publikoko langileen gastuen fiskalizazioan ere eragiten du, eta kanpoko langileen lana

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Los presentes Presupuestos se aprueban en cumplimiento de lo dispuesto en la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, al amparo de lo dispuesto en los artículos 48 y 62.b) del Concierto Económico, de acuerdo a los objetivos de estabilidad presupuestaria y deuda pública de la Diputación Foral de Álava aprobados para el ejercicio 2022, así como así como dando cumplimiento al mandato normativo contenido en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.

Se recoge en el Título I de la presente Norma Foral de Ejecución Presupuestaria su contenido esencial, constituido por la aprobación de los estados de ingresos y gastos del sector público foral del Territorio Histórico de Álava y la consignación del importe de los gastos fiscales que afectan a sus tributos.

El Título II establece el límite de endeudamiento y de prestación de garantías del sector público foral de Álava, así como normas relativas a la gestión de operaciones financieras.

En el Título III se regulan, entre otros aspectos, las especialidades del régimen general de los créditos presupuestarios y de sus modificaciones. En concreto, los niveles de vinculación de créditos para el ejercicio 2022, las excepciones al régimen de transferencias de crédito, diversos aspectos relativos a la regulación de los créditos de compromiso, así como las especificidades de las habilitaciones de crédito.

El Título IV recoge normas relativas a la gestión y control presupuestario, órganos competentes para la autorización y ordenación del gasto, anticipos de tesorería, limitación a la ejecución del gasto, derechos económicos de baja cuantía y control económico.

El Título V, relativo al régimen de la gestión de personal, se divide en dos capítulos. El Capítulo I relativo al sector público administrativo y el Capítulo II, relativo a otras entidades del Sector Público Foral. Ambos regulan la composición de la plantilla presupuestaria, las retribuciones íntegras de su personal funcionario, laboral, eventual y altos cargos, según corresponda. También incide en la fiscalización de los gastos de personal del sector público foral y señala pautas de actuación en

dakarten kontratu edo hitzarmenen arloan jarduteko jarraibideak zehazten ditu.

VI. tituluak toki erakundeen finantzaketa arautzen ditu.

Aurrekontuari buruzko Foru Araua hamahiru xedapen gehigarriren, indargabetzaile baten eta hiru azken xedapenen bidez osatzen da; haietan, askotariko aginduak jasotzen dira:

- Lehenengo xedapen gehigarriak ezartzen ditu Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak bere 32.6 eta 53/1992 FORU ARAUA, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontuzko jaurbideari buruzkoa bere 131.h) artikuluetan ezarritako ekonomia mugak.
- Bigarrenak, langile gastuei buruzkoak, ahalmena eta baimena ematen die Arabako Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluari eta, hala badagokio, Arabako foru sektore publikoko gainerako organo eskudunei kasuan kasuko ordainsari igoera ezartzeko eta xedatzeko.
- Hirugarrenak Arabako Foru Ogasunaren tasak eguneratzen ditu.
- Laugarrenak eta bosgarrenak 2021ean indarrean zeuden zenbatekoei eusten diete, Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren tasei dagokienez.
- Seigarrenak Arabako aziendaren osasunarekin, identifikazioarekin eta abereen garraioarekin loturiko albaitaritza zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen uztailaren 17ko 12/2000 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren lehenengo artikulua -Zerga egitatea- aldatzen du.
- Zazpigarren eta zortzigarren artikuluek 2021ean indarrean zeuden zenbatekoei eusten diete, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko eta Gazteriaren Foru Erakundeko langileak hautatzeko tasetan.
- Bederatzigarrenak AP-1 autobidea erabiltzearen bidesarien zenbatekoak ezartzen ditu 2022rako.
- Hamargarrenak, hamaikagarrena, hamabigarrenak eta hamahirugarrenak toki erakundeei buruzko foru araudia aldatzen dute: zehazki, hamargarrenak Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 62. artikuluaren 5. apartatua aldatzen du, eta hamaikagarren, hamabigarren eta hamahirugarren artikuluek egokitu egiten dituzte Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru

materia de contratos o convenios que impliquen trabajo de personal externo.

El Título VI regula la financiación de las entidades locales.

El contenido de la Norma Foral de Ejecución Presupuestaria se completa con trece disposiciones adicionales, una disposición derogatoria y tres disposiciones finales, en las que se recogen preceptos de índole muy variada:

- La Disposición Adicional Primera establece los umbrales económicos a los que hacen referencia el artículo 32.6 de la Norma Foral 11/2016, de 19 de octubre, de Subvenciones del Territorio Histórico de Álava, y el artículo 131.h) de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava.
- La Segunda, referida a los gastos de personal, habilita y autoriza al Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Álava, y al resto de órganos competentes del sector público foral de Álava, en su caso, a establecer y disponer del incremento de retribuciones correspondiente.
- La Tercera actualiza las tasas de la Hacienda Foral de Alava.
- La Cuarta y Quinta mantienen los importes vigentes en 2021 en las tasas del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos y del Departamento de Fomento del Empleo, Comercio, Turismo y Administración Foral de la Diputación Foral de Álava.
- La Sexta, modifica el artículo primero- hecho imponible- de la Disposición Adicional Decimosexta de la Norma Foral 12/2000, de 17 de julio de Ejecución presupuestaria para 2000, que regula la tasa por servicios veterinarios relacionados con la sanidad, identificación y movimiento pecuario de la cabaña ganadera alavesa.
- La Séptima y Octava, mantienen los importes vigentes en 2021 en las tasas de Selección de Personal del Instituto Foral de Bienestar Social y del Instituto Foral de Juventud, respectivamente.
- La Novena establece los importes de los peajes por utilización de la autopista AP-1 en 2022.
- La Décima, Undécima, Decimosegunda y Decimotercera modifican la normativa foral de entidades locales: en concreto, la Décima modifica el apartado 5 del artículo 62 de la Norma Foral 3/2004, de 9 de Febrero, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava y las Undécima, Decimosegunda y Decimotercera adapta las normas reguladores del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava,

Funtsa, Obra eta Zerbitzuen Foru Plana eta auzo harremanak sustatzeko eta obra txikiak gauzatzeko ekimenei laguntzeko programak arautzen dituzten arauak, urriaren 7ko 4/2021 Legeak xedatutakoaren arabera, zeina baliabideak banatzeko metodologiari eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoko 2022-2026 aldiko Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteari buruzkoa baita.

Jarraian, aurrekontua betearazteko foru arauetan egon ohi den xedapen Indargabetzailea ezartzen da.

Horren ondoren, araua hiru azken xedapenekin osatzen da:

- Azken xedapenetatik lehenengoak Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 10 bis eta 126. artikuluak aldatzen ditu, foru partzuergoei eta zenbait arau xedapenen ekonomia eta araudi kontrolaren salbuespen araubideari buruzkoak.
- Azken xedapenetatik bigarrenak arau honen erregelamendu garapena jasotzen du.
- Eta, azkenik, azken xedapenetako hirugarrenak foru arau hau indarrean sartzea aurreikusten du.

## I. TITULUA. AURREKONTUEN ONESPENA ETA EDUKIA

### 1. artikulua. Onespena

Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontu Orokorrak onesten dira. Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen, foru sozietate publikoen eta Arabako Lurralde Historikoko foru fundazioen aurrekontuek osatzen dituzte aurrekontu horiek.

### 2. artikulua. Arabako foru sektore publikoko erakundeen aurrekontu orokorrak

1. Hauexek dira **Arabako Foru Aldundia**ren 2022ko ekitaldirako aurrekontuaren osagaiak:

a) Gastuen egoera; haren barruan ordainketa kredituak (2.785.366.956 euro) eta konpromiso kredituak (134.776.549 euro) daude.

b) Sarreren egoera (2.785.366.956 euro), eta han 87.529.670 euroko zorpetze eragiketak ageri dira.

2. Foru erakunde autonomoen 2022ko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

del Plan foral de Obras y Servicios y los programas de ayudas a las iniciativas para el Fomento de las Relaciones Vecinales y Ejecución de Obras Menores, en base a lo dispuesto en la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las diputaciones forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026.

A continuación se establece la Disposición Derogatoria habitual en las Normas Forales de Ejecución Presupuestaria.

Tras ello, la Norma se completa con tres disposiciones finales:

- La Disposición Final Primera modifica los artículos 10 bis y 126, de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, relativos a los consorcios forales y al régimen de excepción del control económico normativo de determinadas disposiciones normativas.
- La Disposición Final Segunda contempla el desarrollo reglamentario de la presente norma.
- Y, finalmente, la Disposición Final Tercera sobre la entrada en vigor de la presente Norma Foral.

## TÍTULO I. APROBACIÓN Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS

### Artículo 1. Aprobación

Se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Álava para el ejercicio 2022, integrados por los Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, de los organismos autónomos forales, de las sociedades públicas forales y de las fundaciones forales del Territorio Histórico de Álava.

### Artículo 2. Presupuestos Generales de las entidades del sector público foral de Álava

1. El Presupuesto de la **Diputación Foral de Álava** para el ejercicio 2022 está integrado por:

a) El Estado de Gastos que asciende en cuanto a los créditos de pago a la cantidad de 2.785.366.956 euros y en cuanto a los créditos de compromiso a la cantidad de 134.776.549 euros.

b) El Estado de Ingresos, integrado por una cuantía de 2.785.366.956 euros, figurando en el mismo operaciones de endeudamiento por importe de 87.529.670 euros.

2. El Presupuesto de los organismos autónomos forales para el ejercicio 2022 estará constituido por:

2.1. **Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea**ren aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

a) Gastuen egoera: 222.240.300 euro guztira.

b) Diru sarreren egoera: 222.240.300 euro. Finantzaketarako barne transferentziak atal honetan sartzen dira: 179.782.230 euro.

2.2. **Gazteriaren Foru Erakundea**ren aurrekontuak honako osagaiak ditu:

a) Gastuen egoera: 6.651.269 euro.

b) Diru sarreren egoera: 6.651.269 euro. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 5.080.692 euro.

2.3. **Arabako Foru Suhiltzaileak erakundea**ren aurrekontuak osagai hauek dauzka:

a) Gastuen egoera: 14.354.809 euro.

b) Diru sarreren egoera: 14.354.809 euro. Finantzaketarako barne transferentziak ere atal honetan sartzen dira: 14.276.809 euro.

3. Honako hauek dira foru sozietate publikoen 2022ko ekitaldiko aurrekontuaren osagaiak:

3.1. **Araba Garapen Agentzia SA**ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 7.371.283 euro.

b) Kapital aurrekontua: 606.505 euro.

3.2. **Arabako Kalkulu Gunea SA**ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 23.065.862 euro.

b) Kapital aurrekontua: 0 euro guztira.

3.3. **Naturgolf SA**ren aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 933.822 euro.

b) Kapital aurrekontua: 0 euro guztira.

3.4. **ARABAT Arabako Bideak SA**ren aurrekontua. Ondorengoek osatzen dute:

2.1. El Presupuesto del **Instituto Foral de Bienestar Social**, integrado por:

a) El Estado de Gastos, cuyo importe asciende a 222.240.300 euros.

b) El Estado de Ingresos, por una cuantía de 222.240.300 euros, incluyendo transferencias internas para su financiación por un importe de 179.782.230 euros.

2.2. El Presupuesto del **Instituto Foral de la Juventud**, integrado por:

a) El Estado de Gastos, cuyo importe asciende a la cantidad de 6.651.269 euros.

b) El Estado de Ingresos, por una cuantía de 6.651.269 euros, incluyendo transferencias internas para su financiación por importe de 5.080.692 euros.

2.3. El Presupuesto de **Arabako Foru Suhiltzaileak - Bomberos Forales de Álava**, integrado por:

a) El Estado de Gastos, cuyo importe asciende a la cantidad de 14.354.809 euros.

b) El Estado de Ingresos, por una cuantía de 14.354.809 euros, incluyendo transferencias internas para su financiación por importe de 14.276.809 euros.

3. El Presupuesto de las sociedades públicas forales para el ejercicio 2022 estará constituido por:

3.1. El Presupuesto de **Álava Agencia de Desarrollo, S.A.**, integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 7.371.283 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 606.505 euros.

3.2. El Presupuesto del **Centro de Cálculo de Álava, S.A.**, integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 23.065.862 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 0 euros.

3.3. El Presupuesto de **Naturgolf, S.A.**, integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 933.822 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 0 euros.

3.4. El Presupuesto de **ARABAT, Arabako Bideak-Vías de Álava, S.A.** integrado por:

a) Ustiapen aurrekontua: 11.476.000 euro.

b) Kapital aurrekontua: 6.291.422 euro.

3.5. **Indesa 2010 SL**ren aurrekontua. Ondorengo hauek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 21.461.805 euro.

b) Kapital aurrekontua: 782.822 euro.

3.6. **Enargi Araba SA**ren aurrekontua. Ondorengo hauek osatzen dute:

a) Ustiapen aurrekontua: 5.254 euro.

b) Kapital aurrekontua: 1.000.000 euro.

4. Foru fundazioen 2022ko ekitaldiko aurrekontuak osagai hauek dauzka:

4.1. **Artium Fundazioa**ren aurrekontua. Atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 6.350.673 euro.

b) Kapital aurrekontua: 108.000 euro.

4.2. **Kirolaraba Fundazioa**ren aurrekontua; atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 370.000 euro.

b) Kapital aurrekontua: 0 euro guztira.

4.3. **Santa Maria Katedrala**ren Fundazioaren aurrekontua; atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 2.199.266 euro.

b) Kapital aurrekontua: 570.000 euro.

4.4. **Gatz Harana Fundazioa**ren aurrekontua; atal hauek dauzka:

a) Ustiapen aurrekontua: 2.245.950 euro.

b) Kapital aurrekontua: 303.000 euro.

5. Arabako Lurralde Historikoko zergetan eragina duten zerga gastuak 1.029.800.000 eurotan balioetsi

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 11.476.000 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 6.291.422 euros.

3.5. El Presupuesto de **Indesa 2010, S.L.** integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 21.461.805 euros.

b) por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 782.822 euros.

3.6 El Presupuesto de **Enargi Araba, S.A.** integrado por:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 5.254 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 1.000.000 euros.

4. El Presupuesto de las fundaciones forales para el ejercicio 2022 estará integrado por:

4.1. El Presupuesto de la **Fundación Artium**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 6.350.673 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 108.000 euros.

4.2. El presupuesto de la **Fundación Kirolaraba Fundazioa**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 370.000 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 0 euros.

4.3. El Presupuesto de la **Fundación Catedral Santa María**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 2.199.266 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 570.000 euros.

4.4. El Presupuesto de la **Fundación Valle Salado**, integrado:

a) Por el Presupuesto de Explotación, cuyo importe asciende a 2.245.950 euros.

b) Por el Presupuesto de Capital, cuyo importe asciende a 303.000 euros.

5. En el ejercicio 2022 los gastos fiscales que afectan a los tributos del Territorio Histórico de

dira 2022ko ekitaldirako.

Álava se estiman en 1.029.800.000 euros.

**3. artikulua. Indarraldia**

1. Aurrekontu orokorren indarraldia Arabako Lurralde Historikoaren Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 30. artikuluan xedatuko da.

2. Foru erakunde autonomoen, foru sozietate publikoen eta foru fundazioen ekitaldi ekonomikoa urte naturalarekin bat etorriko da, egindako eragiketen aplikaziorako sortzapen data kontuan hartuta.

**Artículo 3. Vigencia**

1. La vigencia de los Presupuestos Generales será la dispuesta en el artículo 30 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava.

2. El ejercicio económico de los organismos autónomos forales, sociedades públicas forales, y fundaciones forales coincidirá con el año natural, atendiendo a la fecha de devengo para la aplicación de las operaciones realizadas.

## II. TITULUA. FINANTZA ERAGIKETAK

**4. artikulua Zorpetzeko baimena**

1. Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio lurralde historikoan aurrekontu izaerako zorpetze eragiketak egiteko, baldin eta 2022ko abenduaren 31ko foru zor bizia 568.435.830,00 eurotik gorakoa ez bada, ekitaldi horretako aurrekontu-beharrak estaltzeko.

2. Arabako foru sektore publikoko gainerako erakundeei dagokienez, ez dago zorpetzerik, ezta bermeak ematerik ere, salbu eta Enargi Araba SA foru sozietate publikoari. Sozietate horri baimena ematen zaio Ekiola proiektuarekin lotutako inbertsioak finantzatzeko eragiketak bermatzeko, 1.000.000 euroko gehieneko zenbatekoarekin.

3. Baimena ematen da aurreko aurrekontu ekitaldietan sektore publikoko erakundeek formalizatutako zorpetze eragiketak ordezkatzeko formalizatu beharreko zorpetze eragiketak egiteko, betiere erakunde horietako edo finantza merkatuetako finantza egoeran egondako aldaketek justifikatzen badituzte eta finantza karga murrizten badute, amortizazio aldia zabaltzen bada edo biak.

4. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak diruzaintzako unean uneko zailtasunei aurre egiteko behar diren finantzaketa eragiketak formalizatu ahal izango ditu.

5. Foru sozietate publikoek eta foru fundazioek diruzaintzako zailtasunei erantzuteko behar diren finantzaketa eragiketak egin ahal izango dituzte, baldin eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko titularrak baimena ematen badie.

**5. artikulua. Zorpetze eragiketen araubidea**

1. Arabako Foru Aldundian, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren eskumenekoak dira:

## TITULO II. OPERACIONES FINANCIERAS

**Artículo 4. Autorización de endeudamiento**

1. Se autoriza a la Diputación Foral de Álava a realizar operaciones de endeudamiento de carácter presupuestario del Territorio Histórico siempre y cuando la Deuda Foral Viva a 31 de diciembre de 2022 no exceda de 568.435.830,00 euros, con la finalidad de cubrir necesidades presupuestarias durante el citado ejercicio.

2. Para el resto de entidades del sector público foral de Álava, no se permite endeudamiento ni prestación de garantías salvo a la sociedad pública foral Enargi Araba, S.A. a quien se autoriza a garantizar operaciones de financiación de inversiones relacionadas con el proyecto Ekiola por un importe total máximo de de 1.000.000 euros.

3. Se autorizan las operaciones de endeudamiento que se estime necesario formalizar para sustituir operaciones de endeudamiento formalizadas por las entidades pertenecientes al sector público foral de Álava en anteriores ejercicios presupuestarios, siempre que estén motivadas por alteraciones en la situación financiera de dichas entidades o de los mercados financieros y siempre y cuando disminuyan la carga financiera, se amplíe el periodo de amortización o ambas.

4. El Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos podrá formalizar las operaciones de financiación necesarias para atender dificultades momentáneas de tesorería.

5. Las sociedades públicas forales y fundaciones forales podrán formalizar las operaciones de financiación necesarias para atender dificultades momentáneas de tesorería previa autorización de la persona titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

**Artículo 5. Régimen de las operaciones de endeudamiento**

1. En la Diputación Foral de Álava corresponderá a la persona titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos:

a) Foru arau honen babesean egiten diren epe laburreko eta luzeko zorpetze eragiketen interes tasa, epea, baldintzak eta gainerako ezaugarriak zehaztea, eragiketa horiek, hala badagokio, Arabako Foru Aldundiaren ordezkaritzan formalizatuz.

b) Aurreko aurrekontu ekitaldietan formalizatutako zorpetze eragiketak birfinantzatu, amortizatu eta ordezkatzeko formalizatu beharreko zorpetze eragiketak, baldin eta Arabako Foru Aldundiaren edo finantza merkatuen finantza egoeraren aldaketek eragindakoak badira (aldaketa horiek foru arau honen 4.4 artikuluan aipatzen dira).

c) Zor publikoaren jaulkipenetako baldintzak aldaraziko dituzten edo horien kostua hobetzea helburu duten trukaketak, bihurketak, luzapenak, finantza trukeak edo bestelako eragiketak ituntzea. Izan ere, horrelako eragiketa guztiak itundu egin beharko dira: bai aurretik dauden zorpetzeak, bai foru arau honen ondorioz sortuko direnak.

d) Foru Aldundiaren kargura mailegatutako abalak edo bestelako berme motak emateko eragiketen baldintzak zehaztea.

2. Enargi Araba SA sozietate publikoan, artikulu honetako lehenengo apartatuko d) letran aipatzen diren funtzioak egiteko eskumena daukan organoa haren araudian ezartzen da, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak aldeko txostena egin ondoren.

**6. artikulua. Beste finantza eragiketa batzuen araubidea**

1. 2022ko ekitaldian diruzaintzaren kudeaketa hobetzeko asmoarekin, Arabako Foru Aldundiak beharrezko deritzen finantza eragiketa guztiak itundu ahal izango ditu kapital merkatuan horretarako dauden bideak erabiliz.

2. Aurrekontua finantzatzera bideratuta ez dauden finantza eragiketak ondare kontabilitatean soilik erregistratuko dira; nolanahi ere, lortzen diren etekin garbiak edo egiten diren gastuak aurrekontuari aplikatu ahal izango zaizkio.

3. Arabako Foru Aldundiak egiten dituen finantza eratorrien eragiketak ondare kontabilitatean erregistratuko dira.

**III. TITULUA. AURREKONTU KREDITUEN ERREGIMENA ETA ALDAKETAK**

a) La determinación del tipo de interés, plazo, condiciones, y demás características de las operaciones de endeudamiento a corto y a largo plazo que se realicen al amparo de esta Norma Foral, formalizando dichas operaciones, en su caso, en representación de la Diputación Foral de Álava.

b) Refinanciar, amortizar o sustituir operaciones de endeudamiento formalizadas en anteriores ejercicios presupuestarios, siempre que estén motivadas por alteraciones en la situación financiera de la Diputación Foral de Álava o de los mercados financieros, a que se hace referencia en el artículo 4.4 de la presente Norma Foral.

c) Concertar operaciones voluntarias de canje, conversión, prórroga, intercambio financiero, permuta financiera u otras similares, que supongan modificaciones de cualesquiera condiciones de las emisiones de deuda pública o que se dirijan a mejorar su coste, referidos tanto a las operaciones de endeudamiento ya existentes como a las que se pudieran realizar en virtud de la presente Norma Foral.

d) Determinar las condiciones de las operaciones de otorgamiento de avales o cualquier otro tipo de garantía prestados a cargo de la Diputación Foral.

2. El órgano competente para realizar las funciones descritas en el apartado d) del apartado primero del presente articulo en el caso de la sociedad pública Enargi Araba, S.A será el indicado en su normativa reguladora, previo informe favorable del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.

**Artículo 6. Régimen de otras operaciones financieras**

1. Durante el ejercicio 2022, para llevar a cabo una mejor gestión de su tesorería, la Diputación Foral de Álava podrá concertar las operaciones financieras que estime precisas a través de cualquiera de las fórmulas existentes a estos efectos en el mercado de capitales.

2. Las operaciones financieras no destinadas a financiar el Presupuesto serán objeto de registro exclusivamente en contabilidad patrimonial, sin perjuicio de la aplicación al Presupuesto de los rendimientos netos que se obtengan o gastos en que se incurran.

3. Las operaciones de derivados financieros que realice la Diputación Foral de Álava serán objeto de registro en contabilidad patrimonial.

**TITULO III. RÉGIMEN DE CREDITOS PRESUPUESTARIOS Y SUS MODIFICACIONES**

**7. artikulua. Kredituen izaera**

1. Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde autonomoen aurrekontuan sartuta dauden ordainketa kredituak muga jakinekoak eta lotesleak dira. Hona hemen 2022ko ekitaldirako lotura mailak:

a) Kapitulu maila, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko langileria gastuei dagozkien kredituetan, salbu eta “Ondarearen kudeaketa” 933200 Programan jasotako langileria gastuak, haiek lotesleak izango baitira programa mailan.

b) Programa eta Kapitulua, ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketari eta, Arabako Foru Aldundiaren kasuan, interesei eta finantza pasiboen aldakuntzari dagozkien gastuetan.

c) Programa eta Artikulua, transferentzia eta dirulaguntza arrunt eta kapitalekoei, inbertsio errealei eta finantza aktiboen aldakuntzari dagozkien gastuetan.

d) Programa, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko “Ondarearen kudeaketa” 933200 programari dagozkion gastuetan.

e) Arabako Foru Aldundiaren Obra eta Zerbitzuen Foru Plana arautzen duten foru arauetan xedatutakoa aplikatzetik eratorritako kreditu zuzkidurak lotesleak izango dira elkarren artean.

2. Hala ere, lotesleak izango dira finantzaketa lotua duten gastuen ordainketa kredituak, dirulaguntza izendunei dagozkienak eta foru sektore publikoa osatzen duten erakundeentzako diru ekarpenak haiei onesten zaien desagregazio mailarekin, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauaren 47.4 artikuluan aipatutakoez gain, bai eta finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioak eta berreskuratzeko proiektu estrategikoak finantzatzera bideratutakoak ere.

3. Foru sozietate publikoen eta foru fundazioen aurrekontuetako gastuen egoeratan jasotako ordainketa kredituak muga jakinik gabekoak izango dira, eta kasuan kasuko erakundeak bere jarduerak aurrekontu ekitaldian izango duen bilakaerari buruzko aurreikuspenak jasoko ditu, salbu eta transferentzia eta dirulaguntzetarako ordainketa kredituak, bai arruntak bai kapitalekoak, muga jakinekoak izango baitira beti. Muga hori ez zaie aplikatuko Kirolaraba Fundazioak aurrekontuan onartutakoez gainetik jasotzen dituen sarrerei lotutako kredituei.

4. Kredituen lotura maila edozein dela ere, gastuaren kontabilizazioa eta kredituen aldaketak

**Artículo 7. Carácter de los créditos**

1. Los Créditos de pago incluidos en el presupuesto de la Diputación Foral de Álava y de los organismos autónomos tienen carácter limitativo y vinculante. Los niveles de vinculación para el ejercicio 2022 serán los siguientes:

a) Nivel de Capítulo en los créditos correspondientes a los “Gastos de Personal” excepto los “Gastos de Personal” consignados en el Programa 933200 «Gestión del Patrimonio» del Presupuesto de la Diputación Foral de Álava, que serán vinculantes a nivel de Programa.

b) Programa y Capítulo, en los gastos relativos a Compra de Bienes Corrientes y Servicios, y en el caso de la Diputación Foral de Álava, los gastos relativos a Intereses y Variación de Pasivos Financieros.

c) Programa y Artículo, en los gastos relativos a Transferencias y Subvenciones Corrientes y de Capital, Inversiones Reales y Variación de Activos Financieros.

d) Programa, en los gastos relativos al programa 933200 «Gestión del Patrimonio» del presupuesto de la Diputación Foral de Álava.

e) Las dotaciones de los créditos procedentes de la aplicación de lo dispuesto en las Normas Forales reguladoras del Plan Foral de Obras y Servicios de la Diputación Foral de Álava, serán vinculantes entre sí.

2. No obstante, tendrán carácter vinculante con el nivel de desagregación con el que se aprueben, además de los referidos en el artículo 47.4 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava, los créditos de pago de gastos con financiación afectada, los correspondientes a subvenciones nominativas, y las aportaciones dinerarias a entidades integrantes del sector público foral, así como los destinados a financiar inversiones financieramente sostenibles y proyectos estratégicos de recuperación.

3. Los créditos de pago incluidos en los estados de gastos de los Presupuestos de las sociedades públicas forales y fundaciones forales tendrán carácter estimativo, recogiendo las previsiones de la entidad respectiva sobre el desarrollo de su actividad durante el ejercicio presupuestario, con la excepción de los créditos de pago con destino a transferencias y subvenciones, tanto corrientes como de capital, que tendrán siempre carácter limitativo. Esta condición limitativa no será de aplicación a los créditos financiados con ingresos que perciba la Fundación Kirolaraba Fundazioa superiores a los aprobados en el Presupuesto.

4. Independientemente del grado de vinculación de los créditos, la contabilización del gasto y las

kasuan kasuko aurrekontu azpikontzeptu edo partidei aplikatuko zaizkie betiere.

modificaciones de créditos se aplicarán, en todo caso, a los subconceptos o partidas presupuestarias que correspondan.

**8. artikulua. Kreditu transferentzien araubidea**

1. Kreditu transferentzien araubidea bat etorriko da Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak 57. artikuluan xedatutakoarekin. Programa baten barruan ezingo dira aplikatu batera aipatutako foru arauko 57.2 artikuluko d) eta e) arauak.

2. Eragiketa arrunten artean programa desberdinen arteko kreditu transferentziak egin ahal izango dira.

3. VI. kapituluari (Inbertsio errealak) eta VII. kapituluari (Kapital transferentziak dirulaguntzak) dagozkien ordainketa kredituei jatorrian eragiten dieten transferentziek eta II. Kapituluari (Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea) eta IV. Kapituluari (Transferentzia eta dirulaguntza arruntak) dagozkien ordainketa kredituei helmugan eragiten dietenek kasuan kasuko aurrekontuetako VI. eta VII. kapituluetarako hasieran aurrekontuan sartutako zenbatekoen baturaren ehuneko 2 izango dute muga.

4. Jatorria “langileen gastuak” I. kapituluari dagozkion ordainketa kredituak dituzten kreditu transferentziek bakarrik izan ahalko dute helmuga gisa I. kapitulua bera edo kreditu globala, Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko “Ondarearen kudeaketa” 933200 Programan esleitutako I. kapituluko ordainketa kredituak salbu, zeinak Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearen abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak 57. artikuluan ezartzen duen araubidean transferitu ahal izango diren.

**Artículo 8. Régimen de transferencias de crédito**

1. El régimen de transferencias de crédito estará sujeto a lo dispuesto en el artículo 57 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava. Dentro del mismo programa no serán de aplicación las reglas d) y e) del artículo 57.2 de dicha Norma Foral.

2. Se podrán realizar transferencias de créditos entre distintos programas entre operaciones corrientes.

3. Las transferencias que afecten en origen a créditos de pago correspondientes al Capítulo VI *«Inversiones reales»* y al VII *«Transferencias y subvenciones de capital»* y en destino a créditos de pago correspondientes al Capítulo II *«Compra de bienes corrientes y servicios»* y al IV *«Transferencias y subvenciones corrientes»*, tendrán como límite el 2 por 100 de la suma de las cifras inicialmente presupuestadas para los citados Capítulos VI y VII de los respectivos presupuestos.

4. Las transferencias de crédito cuyo origen sean créditos de pago correspondientes al Capítulo I *«Gastos de personal»* únicamente podrán tener como destino el propio Capítulo I o el Crédito Global con excepción de los créditos de pago del Capítulo I consignados en el Programa 933200, *«Gestión del Patrimonio»* del presupuesto de la Diputación Foral de Álava, que podrán ser transferidos bajo el régimen previsto en el artículo 57 de la Norma Foral 53/1992, de 18 de diciembre, de Régimen Económico y Presupuestario del Territorio Histórico de Álava.

**9. artikulua. Kreditu transferentzien araubidearen salbuespenak**

Honako hauek ez dira egongo aurreko artikuluan deskribatutako kreditu transferentzien araubidearen mende:

a) Estatuari kupoa (Euskal Autonomia Erkidegoari eta Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei tributuetan parte hartzeagatik egiten zaizkien ekarpenak) ordaintzeko zuzkiduretan egiten direnak.

b) “Finantza kudeaketa” programako kredituen artean egindakoak.

c) Foru sektore publikoa osatzen duten erakundeak finantzatzeko zuzkiduretan egiten direnak.

d) Kontabilitate egozpen egokia lortzeko beharrezkoak diren egokitzapen teknikoen

**Artículo 9. Excepciones al régimen de transferencias de crédito**

No estarán sujetos al régimen de transferencias de crédito descrito en el artículo anterior:

a) Las que se realicen en las dotaciones destinadas al pago del cupo al Estado, aportaciones a la Comunidad Autónoma del País Vasco y entidades locales del Territorio Histórico de Álava por participación en tributos.

b) Las que se realizan entre los distintos créditos del Programa *«Gestión Financiera»*.

c) Las que se realicen en las dotaciones destinadas a la financiación de las entidades integrantes del sector público foral.

d) Las que sean como consecuencia de adaptaciones técnicas necesarias para obtener

ondoriozkoak, errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak gertatzen direnean, bai eta gastuen eta sarreren kontzeptuak modu desegokian egoztearen ondoriozkoak ere, Kontuen Planaren arabera.

una adecuada imputación contable, en los supuestos de errores materiales, de hecho o aritméticos, así como los de inadecuada imputación de conceptos de gastos e ingresos, según el Plan de Cuentas.

e) Kreditu orokorraren programako kredituei eragiten dietenak, jatorrian zein helmugan.

e) Las que afectan a los créditos del programa de Crédito Global, tanto en origen como en destino.

f) Administrazio berrantolaketen ondorioz sortutakoak edo eskumen edo zerbitzu berriak hartzearen ondorioz sortutakoak.

f) Las que sean consecuencia de reorganizaciones administrativas o se deriven de circunstancias por asunción de nuevas competencias o servicios.

**10. artikulua. Konpromiso kredituen aldaketak**

**Artículo 10. Modificaciones de crédito de compromiso**

1. Konpromiso kredituei eta aurreko ekitaldietan konprometitutako kredituei dagozkien ordainketa kredituek gainerako ordainketa kredituen transferentzia araubide bera izango dute.

1. Los créditos de pago correspondientes a créditos de compromiso y a créditos comprometidos en ejercicio anteriores, estarán sujetos al mismo régimen de transferencias que el resto de los créditos de pago.

2. Diputatuen Kontseiluak baimendutako konpromiso kredituak eta aurreko ekitaldietan konprometitutako kredituak urterokoen bidez alda eta bana ditzake, gastuaren beharrak hala agintzen duenean, betiere oro har hartutako konpromiso kreditua gainditzen ez bada. Ondorio horietarako, “konpromiso kreditu osoa” aurrekontuetako epigrafe bakar bati buruzkoa da.

2. El Consejo de Gobierno Foral podrá proceder a la modificación y distribución por anualidades de los créditos de compromiso autorizados y créditos comprometidos en ejercicio anteriores cuando la necesidad del gasto así lo demande, siempre que no se sobrepase el crédito de compromiso entendido en su conjunto. A estos efectos, la expresión *«crédito de compromiso entendido en su conjunto»* hace referencia a un único epígrafe presupuestario.

3. Konpromiso kredituen etorkizuneko zenbatekoetan gerta daitezkeen aldaketak ez daude 53/1992 Foru Arauaren 57. artikuluko aldaketa araubidearen mende.

3. Las modificaciones que puedan producirse en los importes futuros de los créditos de compromiso no estarán sujetas al régimen de modificaciones del artículo 57 de la Norma Foral 53/1992.

**11. artikulua. Kreditu aldaketak baimentzeko eskumena duten organoak**

**Artículo 11. Órganos competentes para autorizar modificaciones de créditos**

1. Kudeaketa zentralizatuko kredituei eragiten dieten kreditu transferentziak Foru Gobernu Kontseiluak onetsiko ditu, baldin eta kreditu horiek zentralizatu gabeko partidetara bideratzen badira.

1. Las transferencias de crédito que afecten a los créditos calificados como de gestión centralizada serán aprobados por el Consejo de Gobierno Foral, siempre que dichos créditos se destinen a partidas no centralizadas.

2. Bat etorriz Arabako ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak 63.2. artikuluan ezartzen duenarekin, Foru Gobernu Kontseiluak konpromiso kredituen zenbateko osoaren ehuneko 10 aldatu ahal izango du, gehienez.

